Urtarrilla - Enero
16
Astartia - Martes

Bilbao, 1934

# Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA

| | | | |
|---|---|---|---|
| .[illegible]bao'kua... ... | 6,00 | Irko. | Iru il[illegible] |
| Bilbao'atazkua | 7,50 | " | " |
| Idazki-Itunmena | 62,00 | " | urte[illegible] |
| Atzarrijetakuak | 100,00 | " | " |

Beldayen itunduba

XXII urtia ‖ Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° ‖ 234 Idazkutxa ‖ 17.810 Urrutizkiña ‖ 6.586 zenbakija

## Egunekua

### Egutegija

Egutegija, irakuŕle, urtiak aña oŕi daukazan idazti antzeko inguŕti txiki bat ixaten da.

Inguŕti onetako oŕitxubetan, egunari jaokazan deunen ixenak eta abaŕ etoŕten dira, baŕa ipuin, oleŕki ta enparauko irakuŕgayak be.

Oŕitxubotako irakuŕgayak, zuzen ibiltia orixe da ixan be-ta), abeŕi bakotzak, bere abeŕiko izkuntzean idazten dauz.

Euzkadi'n, aspaldioko urtiotan, ele biŕara idatziŕa ageŕtuten dira egutegi oneik: euzkeraz eta eŕderaz idatziŕa.

Enparauko abeŕijak egiŕen daben lez, bertoko elian bakaŕik idatzi biaŕ ba'lira, baña, euzkera utzian idatziŕa argiŕaldu biaŕko litzakez. Baña ez; emen euzkeraz eta eŕderaz idazten dira. Eta euzkotaŕon lotsagaŕirako, eŕderaz geyago ta geyago.

Eta saldu be, alan xe egiŕen dira; eŕderazkuak, geyenak.

卐卐

Lengo egun baten, euzkerazko egutegijak saltzen dauzan adizkide bategaz aurkiŕu nintzan.

Eta egutegijetzaz zeozer esaten astiaŕen, iŕaune auxe egin neutsan:

—Eŕupin, auŕten, ¿euzko-egutegi asko saldu dozuz?

—Asko saldu gura bai nik. Baña nok erosirik eztagon lekuban asko saltzerik eztago.

Ganera—geŕu eban—gure eŕijan eŕderaz uleŕtuten dabenik, eŕiko maxua, jauparijak eta osalarija, ixan ezik, beste iñor ezpa-dago be, euzkerazko egutegiŕan baño eŕderazkotan geyago saltzen dira.

Auŕten, baŕiz—jaŕatu eustan adizkidiak—iñoz jazo etxakuna jazo yaku.

Gure auzoko neskatiĺa batek, Emakume Abeŕtzale-Batza'kua bera, ain zuzen be, aizta bat atzeŕijan lekaime dauko. Eta arek, Palencia'n lekaime daguan lekutik, "Corazón de Jesús„'en egutegijak bidaldu dautsaz emen saltzeko. Eta gure emakumia, Palencia'n lekaime daukan aizta lekaimiaren esana egiŕiaŕen, bere eŕderazko egutegijak aŕtuta etxerik-etxe su ta gaŕ ibili yatzu. Eta jakiña, ba, nik urtero euzkerazkuak saltzen ixan dodazan etxietan be eŕderazkuak saldu dauz. Eta nik, euzkerazkuak bakaŕik saltzen dodazan gixagaxo onek, saltzia gura ixan dodazan gustijak ezin saldu.

卐卐

Eŕupin, nire adizkide zintzuak erantzun eustanagaz aŕiŕuta geratu nintzan.

Igazi diran auteskundietan, autaŕkija emon ixan eben lekaime gustijak edo eunetik larogeta emeretzik, gure auŕka, euzkerearen kaltez euren autaŕkijak emon ebezan.

Eta orain, gure euzko-egutegijei kalte egiŕeko, ¡guda bixija egiŕeko!, Palencia'ko lekaime-etxietatik gaztelerazko egutegijak geure basetxietaratuten dauskubez.

Eta euzkera-kaltezko egiŕen itxusi ori egiŕeko, euzko-basetxetik gaztelara lekaime juan zan emakume euzkotaŕa biŕaŕteko imiŕŕen dabe.

¿Noiz naikotuko dirala, baña, gazteŕaŕok, euzkotaŕoi kalte egiŕen?

Eskumeak ba-dira, euzkera ta euzkotaŕon eskubidiak nundik eta zelan zauriŕuko dabiltz.

Eskeŕak, ba-dira, be, arazo onetan, bide bardiñetik dabiltz: euzkotaŕon eskubide ta eliari aiztuagaz zirika izkiluz erailten.

Eta beste leku doniaguetara begiratuten ba-dogu, baŕiz, lekaimietaraño gustijak, geure eskubide ta euzkerearen gain, gazteŕaŕen ele ta oŕura ezañak euzko-basetxerik eskutubenetaraño eruaten dabiltz.

Eta gu, euzkotaŕok, oneik gauza gustijok egiŕen dauskubezala ikusiŕa be, geure aldez ezertxu be egiŕen eztogula besuak batuta olo lumatuŕa baño otzanago eginda geratuten gara.

¿Noz aŕte iraun biaŕ dabela baña Euzkadi'ko eskubidien kaltezko gazteŕaŕen mustuŕa saŕtze oŕek?

卐卐

Igazi dan igandian, aspaldiko urtiotan ikusi ixan eztodan abeŕtzale zaŕ bat ikusi neban. Eta alkaŕ aguŕtu gebaneko, bata -bestiaren sendijetzazko iŕauniak egiŕen asi gintzazan.

Ene adizkide zaŕak, sendijatzaz zuzendu neutsan iŕauniari erantzuteko, iru alaba ebazala esa neustan, eta euretatik bi, lekeime saŕtu yakazala. Eta irugaŕena be—geŕu eustan gero—lekaime saŕtuteko lokatuten asiŕa dago.

¡Alaba bi lekaime. ta irugaŕena aratuteko burutasunakaz lokatuta...! Euzkadi aldeztuteko iru alaba gitxijago—oldoztu neban—eta ordez. iru areyo geyago.

Ene adizkide abeŕtzale onen alaba lekaimiak be, ba, abeŕtzale-goguakin lekaimetxeratu ba-dira, be, urte asko igazi baño len aldatuko dira, ta guri, euren aizta ta neba abeŕkidiai guda gagoŕa egiŕen asi.

Euren gurasuai, euzkera baño beste elerik eztakijen guraso eŕukaŕijei, eŕdera utzezko idazkijak idatziko dautsiez, ta gure Abeŕija España dala esango dautsen España-aldezko otoidun idantzezkijak bidaldu. Eta azkenez, geure euzko-basetxietara-ta euzkerazko Egutegi edeŕak eldu ez dedixantzat, erderazko egutegi morduak bidalduko dabez, euren ama edo aiztaren bat basetxerik-basetxe bidaldubaz, gazteŕaŕen azi txaŕa euzko-basetxerik kutsugieneraño eruateko.

Eta oneik txatxaŕkeri gustijok uskuŕtzearen ixenian, "para mayor gloria de Dios" egiŕen dabezela entzutia, euzkotaŕon ŕel-bijotzetan zauri bixija edegiŕa ezpa-da, eztago zauri-izkilurik.

卐卐

—Eŕupin, auŕten, ¿euzko-egutegi asko saldu dozuz?

—Asko saldu gura bai nik, baña...

URIBIŔAŔTE'TAŔ IBON.

## Deunen bixitza

### Markel deuna, doipuru ta ziñopa

Gauŕ Eleizak ospatzen daun deun au irugaŕen eundiaren erdi aldera jayo zan Eŕoman. Garai aretan kistaŕen auŕka aizatzen ebezan jazarpenak aŕen. Doibatzaren magalpean azia izan zan. Eleiz-jardunetara deitzen eutson biotzak eta orduko Markelin doipuruak apaiz egin eban.

Ixugaŕia izan zan, agian, Dukeltsen eta Maximen kaisaŕak Doibatzaren auŕka piztu eben erasoa. Oparo ixuri eben odola. Arein atzaparpean jausi ziran ziñopaen aŕtean il zan Markelin doipurua be 304 gaŕe[illegible] uŕtean eta belduen aulkia utsik tinkatu zan. Geroxeago jazarpena zerbait itzali zanean, batu ziran kistaŕak eta Markel autetsi eben doipurutzat.

Agintebidean jaŕi zaneko, kistaŕen artera ama[illegible] ta zeaztasuna erakaŕtea izan zan bere alegiñik aundiena. Jazarpenen gar[illegible]yan naiko nasaitu ziran, ba, kistaŕ askoen ekanduak.

Galeri ri ta Konstantzi ri egotzi eutsoen agintea Dukeltsen'ek eta Maximen'ek. Baña une atan Eŕoma'n egoan Maximen zaŕaren seme Mak[illegible]tzi ta etorkion zioa beŕaŕitik arturik, kaisaŕ egin eban bere burua. Kistaŕen gogoa irabazteko, bere burua be kistaŕen aldezko ta adizkide egin eban. Ordurako kistaŕak asko ugaritu ziran eta agintzeko laguntzale onak ziran. Oŕegatık azaldu zan Makentsi kistaŕ legez: kistaŕen laguntasuna lortu nairik, alegia. Adizkidetasun onen ondorengoz, aldi bateko bakealdia sortu zan. Jazarpenak itzali ziran.

Bakealdi aretan lan aundia egin eban Markel doipuruak. Ogetabost eleizburu eratu zituan Eŕoma n kistaŕtasunera aldraka joyazanak ugutzatzeko, ziñopaen gorpuak obiratzeko, gorpuzkiñak biltzeko ta abaŕ. An zabaltzen zan Jaungoikoaren itza; an egozten ziran ikurtonak. Onelaxen esiratu ta zuzendu zituan bereala Doipuru baŕiak kistaren ekandu nasaituak.

Garbitze onek, baña, naigabe aundiak erakaŕi eutsozan. Jazarpenaren garayan doidoika ibilı ziranak be, doibatzara biurtzen ziran euŕez bakealdian. Markel doipuruak, ordea, eragozpen aundiak ipintzen eutsezan. Au zala-ta, oso mindu ziran aretaiko asko. Iritziak be naiko banandu ziran egite onen ondorengoz. Zio au buruzkaturik, Makentzi sasi-kistaŕa, kistaŕen arerıo agertu zan eta gogorki eraso eutsen.

Deitu eutson Markel doipuruari ta eskatu eutson siniskuntza azpiratuz, jainkoaızunak gurtzeko. Egokionez, biribiĺa izan zan doipuruar[illegible] ezetza. Aŕituta lotu zan kaisaŕa doıpuruaren kemena ta zutitasuna ıkuski. Bıguntasunera jo eban ordun. Alpeŕik alan be. Zemayak, aŕenak, eskeinteak, jazarpenak erabili zituan agoan doipurua makuŕtu ustez. Ez eban ezer lortu. Gero, baŕiz, zartailuz zartakatu ondoren, eŕi-zalditegıetan lanean, otsein apal baten gısan, jaŕı eban. Arek uste eban kistaŕen doipuruarentzat eriotza baño be okeŕagoko zigoŕa zala au.

Doipuru deuna, baña, jazarpen oneik gustiak Jaungoikuagaitik pozkiro eroanaz, zaldizaı egın zan. Zaldiai baño be uŕiago ta lardatsago emotsoezan doipuruari janariak. Bederatzi ilabete egin zituan zeregin apal onetan.

Gau batez, oŕatiño, ixilean atera eben kistaŕak zalditegitik eta Argiñe izendun emakume alargun baten etxera eroan eben ezkutuka. Otoızalea ta elizkoya zan oso emakume alargun au. Alan, ba, itzal aundız eta bidezko begiramenez artu eban bere etxean doipurua. Etxe oŕetara joaten ziran alde guztietatik Doipuruari bere maitasuna erakutsi nairik Eŕoma'ra biltzen ziran kistaŕak.

Lasteŕ jakin eban Makentzi'k jazoten zana. Au zala-ta, Markel'i une atan bertan bizia kendu edo ez eztabaidan egon zan berekiko. Gero, baña, kistaŕentzat eurentzat mıngaŕigoa izango zalakoan, emakume alargunaren etxea, bidenabaŕ eleiza zan etxean, eŕi-zalditegi biuŕtu ta egin eban eta doipurua bera be lengo jardunera itzuli eban; zaldi-zaintzara, alegia, indaŕez.

Len lez, pozkıro ekin eutson bere lanari doipuruak. Ango jardunak, oŕatio, ez eban Doibatzako zaintzatik doipuruaren gogoa aldendu. Garai aretan idatzi zituan idazti deun bi: Bat Antiokia'ko gotzañei zuzendua; bestea, baŕiz, Makentzi kaisaŕ gaiztoa gaiztetsiz.

Jazarpen oneik igaro ta geroxeago il zan Markel doıpurua 308'gaŕen uŕtean, nekeak eta ildurak auldua. Miragaŕia da, benetan, doipuru onen bizitza. Ludi onetan jasaniko neke ta naigabeak oparo sarizten Jaunak eskuzabalka ordainduko dautsoz doipuru deunari Beragatik jasaniko jazarpenak.

A.'TAŔ T.

## CATALUNYA'KO AUTESKUNDIAK

Igandez ixan ziran Catalunya'ko austekundiak, erri gustijetako udalak barrıztauteko ziran auteskundiak. Amabost egun oneitan egın diran itzaldijak eta zabalgundiak gorrotozkuak baño etziran. Batez-bere Esquerra ta Lliga'kuak asarre bixijak ixan dabez.

Aldun-auteskundietan nagosi urten ziran Lliga'kuak. Dirudıjanez indarrik geyen oneik eukoen, baña Esquerra'kuak etziran baretuten. Alderdi onek eratu eban itzaldi gorengo bat. España'ko errıketari ospetsubenak aratu ziran. Azaña, Prieto, Casares Quiroga eta abar.

Antzu oneik ikusten zırala, ondorenguak zelakuak ixango zıran edonok igarriko eban. Ezkertarrai gurendea emon bıar ba. Catalunya'ko ızparrıngijetan uar argijak etorzan, autarkidunai ezaupide onenak emoteko. Esquerra'kuak ixundutu ebezan zedula pilluak. ¿Zetarako? Autarkı-ıxunak kutxetan sartu al-ixateko.

Arduritasun andija ixan zan, beraz ıgandez. Barcelona'ko txaidietan notintza ikeragarrijak ebiltzan. Belbil batzubetatik jaurti ebezan subageak, eta beste etxe-okoluetatik, be, sutots batzuk ixan ziran. Olako zarratakaitik etziran bildurtu autarkidunak.

Lau-laugarrenan sarrate ziran autarki-kutxak. Zenbaketeak asi zıraneko amaitu ziran. Iñok eztaki ain arin zelan egin ziran. Barcelona'ko aurtaki-zenbakijetan ikusten danaz, Esquerra'kuak nagosi urten dira. Zengaki askogaz urten bere.

Bigarrengo mallan Lliga'kuak dira. ¿Zer jazo dan auteskunde oneitan? Egun batzutan itxadon biar-ixango dogu, Catalunya'ko izparringijak zer dirauskube jakiteko. Lotsagarrikeri andijak ixan dirala entzun dogu, baña gauzak argi jakin gura doguzan ezkero, zur ixango gara.

Gabeko amargarrenan itzaldija egin eban Selvas Generalitat'eko mınistrubak. Catalandarrak ezkertarrakaz dagozala iñuan eta lurralde aretako izparrak pozkarrijak zirala España'ko erkalderrentzat, be. Bildurra kendu egixube, iñuan, España'ko erkalak eztaukolako arrizkurik.

Catalunya'ko beste erri geyenetan be ezkertarrak nagosi ixan dira. Barcelona'ko zenbakijak onexek dira: Esquerra'kuak 162.616 autarki eta eskumarrak 132.942. Aldakuntza andija dago.

Companys jaunak itzaldija egin eban Generalitat-jauregijan. Lliga'kuak diñoenez atzipe-bidia baño eztira ixan auteskunde orreik. Agiri geyenetan euren asarria imiñi dabe.

Aurregunean gustijak uste eben Lliga'kuak buru-ixango zirala, ¿zelan baña zelan ogetamar mila autarki geyago ixan dabez Esquerra'kuak? Auzi au erabagiko danik eztogu uste. Emekuok, be, ondo dakigu zer egin daroen ezkertarrak. Batez-bere agitari eurek diranian. Ezkara arruituten, beraz.

## ERRIKETEA

España'ko polıtiku-artian Sánchez Román dozu aipatubena. Zer esan andıjak daukazala dirudı, baña oindıkarren eztau ezer esan. Erkaldarrak noruntz jo biar daben atzadu eban ıgandez. Alderdi batzuk ezereztu dira, beste batzuk gixon-bururik eztauke. ¿Noren eskubetara jausiko ete-dan? Aldun-batzar onegaz ez ei-dau gauza andirik lortuko jaurbatzak, biar dan aldun-zenbakija eztaukolako. Eskumarrak gura dabena egin-ostian ezkertaren asarria ıxango dau, oiz.

Sánchez Roman'ek azkespenari edo anistijari ekin eutsan. Azkepena nai dabenak eskumarrak ei-dira, baña ¿zer dala-ta? Auteskunde-aurrıetan zabalgunde geyenetan esan eroien: espetxietan diranak azke jarriko doguz. Beraz, azkespen ori ezin emon daikie ezkertarrak, orregaz, ba, erkalari kalte andija egingo leukioe.

Edozein gaizkin azke itxiko bada, gorrijenakan asi eta eskumaldeko gustijakana eldu-arte, bat be ezta laga biarko espetxe-barruban. Izlari orrek eztau azkespenik ikusi gura, gaizkiñai atiak etxakezelako zabaldu biar.

¿Eta lan-eza urrituteko artu diran erabagijak zelan ulertu? Eskumarrak eskatu ebedan eun milloi laurleko, baña erkaldarrak eztira atzian geratu gura-ixan. Orregaitik anei milloi ixentau dabez orretarako. Laterri biztanliak olan asten diranian, eztago gauza onik. Batzuk eta bestiak, alkarren leyan baño eztabiltz. Bitartian lan-eza ezta gitxituten.

Sánchez Román jardun zan jauparijai emongo yakenatzaz, be. Lagidi barrija egin zanian, izlari onek atzaldu eben bere ustia. Jaunparijai zeozer emon biarra eguala, baña orain asko orren aurka dago. Eskumarrak asmau daben uste onegaz ezin poztu daitekez erkaldarrak.

Itzaldi luze orretan ikutu euzan España'ko gora-bera osuak. Gudarıarazuak eta Marx'en alderdikoen araudijak atzaldu euzan. Sosolıstoen areyo-antzean mintzatu zan-arren, erabagi geyenetan Prieto'en aldez lan-egin dau jaun orrek.

Sánchez Román'ek itzaldijan gauza entzungarrıjak ixango zirala uste ebenak asarre dira. Gauza jakingarririk ezeban atzaldu. Eta iñori ardura andirik ezpa-dautso emoten orren itzaldijak, euzkotarrai ezerez. Geure aberriko gora-berak eztauz ulertzen izlari orrek.




### MAÑARIA

LENENGO BARIKUBAN.— Josu'ren Bijotz gozoaren aintzaz, saspiretako jaupan Jaunaŕtziak eta otoitzak egin ziran. Eta iluntzijan egin zan elizkixuna be, asmu bardiñaz egiña ixan zan. ¡Aintza Bijotz Deun-deunari!

JUAN - ETOŔIJAK. — Gordexuela'ra juan ziran, ango ildegijan argin-lan edeŕetan ekiteko, Zugatzagoŕia'taŕ Bingen, Goti'taŕ Markelin, Barazaŕ'taŕ Kandida ta Bernaola'taŕ Eŕapel emeko mutil abeŕtzaliak.

—Ereño'ra juan zan, bere aizkide baten obiraltzera, Ibaŕa'taŕ Eŕupin txaunburu jauna.

—Urkiola'n eta emen Gabon-jayak igarota, aste ontan juan da Bilbao'ra, Zabarte'taŕ Bediŕe neskatila.

—Yuŕe'tik etoŕi zan Zubizaŕeta'taŕ Eŕosale neskatiĺa bere lobatxuaz.

—Igandian egon ziran emen, Bizkaŕa'taŕ Elixabete, Inese ta Markel, Urkiola'ko Bizkaŕa-jotetxeko seme-alaba begikuak.

—Bilbao'n ta Eloŕio'n Gabon-jayak igarota, lengo astian etoŕi zan "Gatzayeta" basetxeko moŕoe zintzua dan Peli mutiĺa.

—Emen egun batzuk igarota, astaŕtian juan zan Eŕetuerto'ra, Zabala'taŕ Gergore neskatiĺa.

BATZAŔA.— Euzko-Batzoki'ko bazkidiak, igandian, iŕaren 14'gn., goxeko amaıketan, batzaŕ orokaŕa egingo da-be. Ta batzaŕ ori lengo Batzoki'ko aretatxuban egingo da.

URKIOLA'RA.— Egubaztenlan, "San Anton" eguna dala-ta, Urkiola - ganera igoteko gaŕ andija dago; gastien aŕtian asiŕa dagoz, batez-be. Eguraldi ona nai txaŕa ixan, bate-batzuk atzerarik ez-ei-dabe egingo. ¡Ori da ori, umoria ta adoria eukitia! Lenago be, egun oŕetan, Urkiola'ra olantxe juaten ei-zan jentia; ta auŕten be bardin ixango dala uste dogu.

Ta gero... an goyan, eguna, bakotxak bere erara igarota, gabaren altzuan, bate-batzuk lapraskadarik eta zaŕapaŕarik ekaŕiko da-be...

"Txakurzulo'laŕapast
Mañarijan jausi,
mamiña malatuta
azuŕik ez ausi."

Bertsotxu onek, lenago be bai-zirala edo diñosku... Orduban be ixango ziran; baña bai gauŕ be...

Egun argiz ta buru argiz ibili gastiak...

EGURALDIJA.—Naiko ona; otza be, len baño gitxiago nabaŕtzen dogu ta. Ondiñokaŕen baña, eduŕa begijen auŕian daukagu. Egoenetako landiari begiratzia baño eztago.

### MUXIKA

EUZKEL-IXENAK.— Sardui'taŕ Eŕupin eta Enbeita'taŕ Bingene'k, semetxu bat ixan dabe, ta ugutzan Deunoro Txabeŕ euzkel-ixen begikuak ezaŕi dautsez.

Aŕabitxi-amabitxijak, Enbeita'taŕ Imanol eta Sardui'taŕ Gergore jayopaŕitxubaren osaba-ixekuak ixan dira. Zorijonak.

Agoŕia'taŕ Joseba ta Beaskoetxea'taŕ Estepane senaŕ-emastiak be, semetxu baŕi bat ludiratu dabe. Zorijonak.

AGATE DEUNA'REN ABESTIJAK. Ariatza'ko ezpatadantzari ta gorulari taldeak Agate Deuna'ren abestijak ikasten asiŕa dagoz.

Talde oneik Gabon-abestijak edeŕto abestu ebezan, Agate'renak, baña, eurak diñuenez, obeto abestuko ei-dabez. Ori, irakuŕle, eguna datoŕenian ikusi biaŕ.

EŔEGEN-SAŔIJAK.—Igazi dan igandian Etxebaŕia'taŕ Biŕoŕ jaunak Ariatza'ko txadonan Eŕegen-sari edeŕak banandu ebazan emengo umien aŕtian.

EGURALDIJAK. — Igazi dan astian emen, eguraldi oso edeŕak egin ebazan. Eta ori dala-ta emengo lugiñak lusagaŕak ereŕeko luŕak gertetan zoli dabiltz.

NASKALDIJA.— Gudaritzatik etoŕiŕa emen aurkitzen dira Uribe'taŕ Kepa ta Ajuria'taŕ Kepa abeŕtzale zintzuak.

Barcelona'ra juan da Sardui'taŕ Gergore emakume zintzua. Zorijonak.

GEXORIK.—Zendagorta'taŕ Joseba mutil gastia gexorik aurkitzen da. Ain bat ariñen osatuko al da.

TXINDOŔ-KUMIA.

## JEAN BARBIER

## Ichtorio - Michterio

### (Ipuin - Mipuñak)

(Lapurdieraz)

8.—EŔEKINA HIŔŔIZ

—Hel! Hel!" oihuka hasten da orduan eta kaŕasiaka. Oihu hetarat atzaŕirik, lasterka hor heldu da gelaria, haŕo haŕoa ileak, zilo handi bat taŕapatan ezaŕi duen soineko txaŕaren erdi eŕdian. Bere nausia lagundu behaŕez, bildotcharen bertze behaŕiari lotzen da, eta ezin diro utz gehiago. Muthikoa bildotchari tiraka, tiraka hari berari eŕetora eta gelaria, kanpora badoazi hiruak trumilka...

Baratzean iragaitearekin, bere buruaz ahalketurik, aza-hosto handi bat hartzen du gelariak eta emaiten gibel-aldean, soıneko ziloaren estaltzeko. Eta badoazi, furfurian, heŕian harat, jauregiko alderat.

Eta hoŕa, azari oharturik eta hartaz gutiziaturik, heldu zaizkotela bide-bazteŕeko hiru ahuntz alimale. Aza-hostoa hunkitu orduko, hari lothuak gelditzen dire, eta zipoteka abiatzen gero... gelari, aphez, bildotch eta muthikoarekin.

Uŕunago, nola bolanjer-okina jeikia baitzen orduko eta hantchet baitzagon athean, oihu egiten diote: "Zato, othoi, eta berech gaitzatzu!" Badoa okina, eta bera hantchet lotzen

Harotz bat bere lantegian ari ikusten dute eta hel egiten diote kaŕasiaka: "Gizon hazkaŕa baitzare, zato gure berechtera!" Lasteŕka badoa harotza eta bera lotzen hura ere.

Uŕuntchago, beren erkatzak eskuan, athe aintzinean kalakan ari, baziren bi emazteki. Zapartakan heldu, kabaleria hura guzia ikusi duteneko, hiŕi eta hiŕi hasten dire bi atsoak. Gelariak oihu egiten diote: "Hiŕiz hola artzeko orde, hobeki egin ziniote, gure berechtera heldu bazineztе!" "Berechtera?... Huna, huna!" Eta beren erkatzekin, jo eta jo hasten zaizko jende eta alimalezko soka luzeari... Ah! baia! Erkatzak lotzen dira hantchet, lehen ukaldian berean, eta heien jabeak gero erkatzeri.

Bihurgune batean, chakur baten ondotik eta hari estekatua, bazoan itsu bat. Gure dantza-korda eŕabiatua aldean iragaitearekin, chakuŕa sainga eta sainga emaiten da, asikika atsoeri. Lotzen da berehala hura ere, eta itsua gero harekin.

Eta, fiŕindilaka, badoazi oro, Eŕegeren Jauregirat ari zirela hurbiltzen.

卐卐

Lorik ezin-eginez jadanik jeikia, bethi bezin ilhun, Jauregiko leiho handi baten ondoan erdi etzana zagon Eŕegeren Alaba gaichoa...

Elghaŕi lotuak, eta soka dantza lehergaŕi batean heldu, ikusi zituelarik... muthil gaztea, bildotcha, apheza, gelaria, aza-hostoa, ahuntzak, okina, harotza, bi emaztekiak, chakuŕa, itsua, hiŕi eta hiŕi hasi zen Eŕegina gazte gaichoa. Eta hiŕi egitetik ez ziteken geldi gehiago, choro bat bezala karkaraka ari bethi...

Zalapartaka ethoŕi zen Eŕege, loriatu baitzen lehenik, bere Alaba hiŕiz hola lehen aldikotz ikusirik aspaldiko orde. Bainan gero beŕiz, izitu zen, belduŕez eta hiŕi egitetik ez zitzakion geldi gehiago. Eta hasaŕe goŕian eman ere zen lasteŕ, putinka Jauregi aintzinean bethi ari ziren jende heien kontra, bere Alaba erhoa-razten ziotela. Guzien hilarazieko manua eman zuen, eta soldadoak jada lasteŕka bazoazin, kanitak eskuan...

Betbetan, muthil gaztea tankez gelditu zen, eta haren ondotik lasteŕka heldu ziren guziek muthurka joan ziren elgaŕen gainerat, bainan elgaŕen ganik berechiak ere zirela ordutik. Eta gero, oihu handi batean manatu zion Eŕegeren Alabari: "Aski hola!"... Bildotcha maŕakaz hasi zen hura ere, eta Eŕegina gazteari bere hiŕi choroa baratu zitzaion berehala. Sendatua zen behin bethikotz eta maite maitea egina...

卐卐

Hilabethea gabe; Eŕegek hitzeman bezala, muthil gaztearekin ezkondu zen Eŕegina, eta hauŕ hainitz izen zuten.

(Bizkayeraz)

8.—EŔEGINA BAŔEZ

—Lagun niri! Lagun niri!" deadaŕka asten da orduan eta gaŕaizika. Deadaŕ aekaz iratzaŕturik, ara non datoŕen arineketan giltzaria, uleak naskil-naskil eginda, zaŕapastaka jantzi dauan soñeko mantaŕaren erdi-erdian taŕatada andi bat dauala. Bere ugazabari lagundu gurarik, oratuten dautso bildotsaren beste belaŕiari, eta ezin dautso geyago uts-emon. Mutiĺa bildotsari tenka, tenka uts-emon. Mutiĺa bildotsari tenka, tenka arexeri berari abadea eta giltzaria, an doaz irurak paŕastaka kanpora.

Ortun zeaŕ igarotean, bere buruaz lotsaturik, aza-oŕi andi bat aŕtuten dau giltzariak eta atze-aldean iminten, soñeko taŕatadea estalduteko. Eta ba-doaz, zurrumilo baten, eŕitik arantz, Jauregi aldera.

Eta, azea ikusirik eta axe oturik, ara non yatoŕkezan bide-bazteŕeko iru auntz erakusmeneko. Aza-oŕiari ikututen dautseneko, axeri lotuta geldituten dira eta zaŕapastaka abiauten gero... giltzari, abade, bildots eta mutilagaz.

Uŕunago, panadero-okina jagita egoan ordurako, eta antxe atean egoanez, deadaŕ egiten dautse: "Zatoz, aŕen, eta azkatu gagizuz!" Ba-doa okina eta, bera antxe lotu.

Eŕementari bat bere lantegian ziaŕduala ikusten dabe, eta laguntza eskatuten dautse gaŕaizika: "Gizon indaŕtsua zara-ta, zatoz gu azkatuten!" Ba-doa arineketan eŕementaria eta, bera lotu axe bere.

Uŕuntxoago, ba-egozan andra bi euren itxuskiak eskuetan zituezala, ate auŕean baŕiketan. Zaŕapastaka datoŕen a mandotedi guztia ıkusten dabeneko, asten dira atso biak baŕeka eta baŕeka. Giltzariak deadaŕ egiten dautse: "Baŕezka olan jaŕi barik, oba zeunkee gu azkatuten etoŕi!" "Azkatuten?... Ara, ara! "Eta euren itxuskiakaz jo eta jo asten yake lagun eta aberezko soka luzeari... A! Bai e? Itxuskiak itxasita geldituten dira bertan, eta gero jaubeak euren itxuskierı.

Bide biuŕgune baten, ba-joyan itsu bat txakuŕ baten atzetik eta areri txikotaz lotuta. Gure dantza-soka amoŕatua albotik igaroeran, asten da txakuŕa ausi eta ausi, atsoeri aginka. Beingoan geldituten da lotuta a bere, eta itsua gero aregaz.

Eta, txikindolako, ba-doaz guztiak, Eŕegeren Jauregira uŕeratuez.

卐卐

Lorik egin ezinda orduarako jagita, beti legez gogo-ilun, ba-egoan Eŕegeren Alaba gaisoa leyo andi baten ondoan erdi etzanda..

Ikusi zituzanean alkaŕeri itxasita eta soka-dantza leŕdagaŕi baten etozala... mutil gaztea, bildotsa, abadea, giltzaria, aza-oŕia, auntzak, okina, eŕementaria, andra biak, txakuŕa eta itsua, baŕeka eta baŕeka asi zan Eŕegina gazte gaisoa. Eta baŕe egiteari ezin itzi eikeon geyago; zoro bat legez karkaŕ eta karkaŕ eragoyon beti...

Astrapalaka etoŕi zan Eŕege, eta lenengotan sekulako poztu zan bere Alabea baŕeka olan lenengokoz ikusirik, aspaldiko ordez. Baña gero, ostera, ikaratu egin zan, baŕe egiteari geyago ezin itzi izango ete eutsan bilduŕez.

Eta asaŕe goŕitan bere lasteŕ jaŕi zan, Jauregi auŕean tenkurtika eta tenkurtika eragoyoen lagun aen ala, bere Alabeari zoratu eragin beaŕ eutsela-ta. Guztiak erailteko agindua emon eban, eta ba-joazan joan gudariak arineketan eskuan gañuetak zituezala...

Bat-batean, mutil gaztea drak gelditu zan, eta aren atzetik etozan guztiak mustuŕez joan ziran alkaŕen ganera, baña bai alkaŕeganik azkatuta bere ordutik geyago. Eta gero deadaŕ andi bategaz agindu eutson Eŕegeren Alabeari: "Naikoa da...!" Bildotsa beeka asi zan bera bere, eta Eŕegina gazteari lotu egin yakon beingoan bere baŕe zoroa. Osatuta egoan bein eta betiko, eta maitegaŕi-maitegaŕi egina...

卐卐

Ilabete orduko, Eŕegek berba emondakoanez, mutil gazteagaz ezkondu zan Eŕegina, eta beredin ume izan zituezen.

Bizkayeratzalea,
GAŔO'TAŔ BERNARTA M.

ATZALGAŔIAK.—"Hel! Hel!" (L), ¡socorro! ¡socorro!; "gelari" (L), afriki" (B), escoba; "itxasi" (B), apegar; vienta de sacerdotes; "erkatz" (L), "itxuski" (B), escoba; "itxasi" (B), apegar; "lehergaŕi" (L), "leŕdagaŕi" (B), aplastante; "tenkurtika" (B), a puro tirar; "asaŕe... lagun aen ala" (B), enfadado... en contra de aquella gente; "drak gelditu" (B), parar en seco; "lotu" (B), además de "amarrar", "atar", "adherir", tienen en B la significación de "parar", "pararse": "baŕea lotu", parar de reirse, parar la risa; "burdia lotu egin da", se ha parado el carro; "hainitz" (L), "beredin" (B), muchos.


INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
TOLOSA
Teléfono. 154.

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE